

2.1.1.

ALKATETZA

EKITALDI INSTITUZIONALAK ETA PROTOKOLOA

Protokolo Zerbitzuaren berezko diren ordezkaritza eta topaketa jarduerak oso murriztuta egon dira 2020an (ikus COVID-19).

Aurten Udaltzazak ez du ekitaldi instituzionalik egin, uztailaren 4an ospatu zen Bost Zaurien botoa (San Agustin parrokia) salbu; ohiko datak baino hiru hilabete beranduago egin zen, eta diseinuan aldaketak egin ziren.

BISITA GIDATUAK UDALETXERA

Urtean zehar, 63 taldek bisitatu dute Udaletxea, hori horrela, urte osoan zehar, modu egonkorrean eta doan eskaintako zerbitzu horren bitartez, 1.413 pertsonak bisitatu dituzte udaletxeko aretoak. Udalak kalitatea neurtzeko sistema bat ezarri du, gogobetetzeari buruzko inkestak bidez, bisitaren edukia, erreserba-sistemaren funtzionamendua eta jasotako tratua neurtzeko, besteak beste.

URTEA	2016	2017	2018	2019	2020
Talde kopurua	124	145	147	172	63
Pertsonak, guztira	3.200	3.600	3700	4.547	1.413

HARRERA-EKITALDIAK

2020an, alkatea buru izan duten 15 harrera-ekitaldi egin dira, eta Udaltzazak ere hartu du parte horietan.

URTEA	2016	2017	2018	2019	2020
Harrera-ekitaldi	14	12	26	22	15

BESTELAKO EKITALDIAK

Harrera-ekitaldiez gain, alkatea eta Udaltzazako kide batzuk hainbat edukitako beste 8 ekitalditara ere joan dira (sari-banaketak, jardunaldiak eta abar).

Ekitaldi instituzionaletatik kanpo, irailean Aralarko Aingeruari harrera egin zitzaion, tradizionalki apirilean egin ohi dena. Hilabete horretan, Batasunaren Pribilegioaren egunaren inguruan, Katedralera joan ziren Karlos III.a Prestuari erresponstu bat eta lore eskaintza bat egitera, Udaleko kideekin baina ez hiriaren izenean. Abenduan alkatearen bulegoan egin ohi den jaiotzaren inaugurazio-ekitaldia ere aldatu zen, eta soilik Jaiotzazaleen Elkarteko lehendakariarekin egin zen, gabon kantak interpretatu gabe.

Osasun segurtasuneko arauak malgutu zirenean zinegotzien presentzia duten ekitaldiak berriz abiatu ziren, baina gonbidatu kopurua txikituta, eta, askotan, Udaletxeko harrera-aretoan egin ordezkari espazio handiagoetan eginez, hala nola, Ziuadadelako Arma Aretoan edo Kondestablearen jauregian.